

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ZAINZAREN ETIKA

HAUR HEZKUNTZA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Ikasleekin jarduerak egiteko ideia hauekin proposamen ireki eta moldagarria egin nahi da. Ideiak beraien artean konbinatzeko modukoak dira. Jarduera hauek aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independentean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

Ideiak hezkuntza etapaka aurkeztu eta iradoki dira, antzeko esperientziak egin dituzten ikasleen adinaren arabera. Nolanahi ere, horiek guztiak **beste adin bateko ikasleen interes eta ezaugarriei egokitzeko modukoak dira.**

"EGUN BAT ...(R)EN BIZITZAN"

Jolas sinboliko bat da, bizitza proiektu eta modu desberdinen gainekoa. Jolasa zera da: norbera izatea, edo gurearen antzekoa den familia bat izatea, edo familia desberdina izatea (beste herrialde batekoa, beste kultura batekoa), edo atso bat izatea, mutiko bat izatea... Horrela, bizitza horien bidez beraien artean zerikusia duten giza jarduerak ezagutuko dituzte, kasu, lana, aisia, zainketa...

Egun eta bizitza horietan ohartuko gara, kasuaren arabera, hainbat gauza falta edo alda daitezkeela. Baina egun horietan guztietan, nolana hikoak direlarik ere, zainketa hor egonen da. Norberaren zainketa, beste batzuegandik jasotakoa, beste pertsona batzuek ematen dutena...

Horrela, kontua da **zainketa jarduerak** imitatzea, bizitzea, ezagutzea eta horien gainean hausnartzea, kontuan izanik gizakien bizitzan nola garrantzia duten. Horretarako, ondokoa egin beharko dugu:

- ▶ Bermatu beharko dugu **mutikoen ere parte hartzen dutela zainketa lanean**, eta horiek ez direla nesken kontutzat hartzen. Horretarako, funtsezkoa izan daiteke aparte lan egitea, ezagutza gabezia edo aurreiritziak dituztelako jolasean aritzeko zailtasunak dituztenekin.
- ▶ **Zerrendak osatu** pertsonen zainketaekin loturiko ardura eta lanekin zerikusia duten hitzekin, aditzekin, horma-irudiekin, irudiekin... Horiek jolasean zehar aterako dira, pertsonaiek eremu batean eta bestean eta jardura batean eta bestean aritu hala.
- ▶ **Zainketa bestelako jardura, lan edo ardura pertsonalak betetzearekin lotzea.** Jardura, lan edo ardura horiek lanekoak edo profesionalak (enplegua, prestakuntza, etab.), zein pertsonalak (denbora eta norberaren gustuak) edo sozialak izan daitezke, kasu, aisialdia, dibertsioa, parte hartzea, gizarte ordezkartza, etab.



rolez aldatzea

Garrantzitsua da egiten ditugun jarduera, ipuin, jolas eta abarretan ikasleei estereotipatu gabeko eredu eta egoerak proposatzea, horietan ikusi eta esperimentatu ahal izan dezaten, jolasaren bidez, genero rolen aldaketa.

Zaintzaren kasuan, **garrantzitsua da mutikoen zaintzailearena egitea, eta nesken zainduarena.** Eta alderantziz, jakina. Baina joko hori ohikoagoa eta "normalagoa" denez nesken artean eta gizarte eredu hedatuena denez emakumeek zaintzea beste pertsonak, guri dagokigu ereduarekin, proposatuz eta ahalbidetuz horren arrunta eta "normala" ez den esperientzia eta ikaskuntza: hau da, gizonek hartzea emakume eta gizonen zainketa ardura.

zainduz ikasten da

Zainketa gizakiaren funtsezko ezaugarria da, eta biziraun ahal izateko beharrezkoa izateaz gain, bizitza kalitateko eta ongizaterako giza eta gizarte beharrezko bat ere bada.

Zaintzaren bidez ikasten da zaintzen. Hots, **asumituz zainketa ardura, eta behar bezala egiten ikasiz** (planifikazioa, prozesuak, materialak, tresnak, trebetasunak, ekonomia...).

Autonomia pertsonalaren ikuspegitik eta berdintasunerako hezkuntzaren eta giza eskubideen ikuspegitik, ikasleek hori **beharrezkoa da eta komenigarria da, bai mutikoen eta bai neskenentzako.**

zaintzera jolastea

Gure ikasleek jolastuz ikasten dute. Jolasak ahalbidetuko die arriskurik gabe bizitzen ikastea, lasaitasunez. Jolasa baita. Hori baino ez. Baina hori guztia. Zaintzera jolasten badugu, **neskatoak izan zein mutikoak izan**, honako hau egin daiteke:

- Jolasaren bidez zaintzen ikastea, edo ez ikastea. Jolastea eta gaizki zaintzea edo jolastea eta ongi zaintzea. Asmatzea edo huts egitea.
- Gure jolasa, zaintzeko gure modua, gure erabakiak eta ondoriozko hautapenak hobetzea.
- Berriz ere jolastea eta beste modu batez zaintzea. Probatzea zer egin, sentitu, esan... dezakegun eta zer ez, zaintzen ari garenean.
- Hobeki ezagutzea, gure aukerak eta gure mugak ezagutzea.
- Irabazi eta galdu, zainketa ongi edo gaizki atera daiteke.
- Irabazi eta irabazi, hobeki joanen zaigu jende guztia ongi zainduta badago.

beste bat izatera jolastea

Beste bat izatera jolasteak aukera ematen digu norberaren bizitza berriz bizitzeko eta asmatzeko, eta bereziki beste batzuen bizitzan esperimentatzeko. **Baimena, denbora eta tresnak ematen ditu enpatiarako:**

- Beste pertsona batzuk konbida ditzakegu, haien bizitzako egoerak bizi ditzakegu, bide horretatik ezagutu eta hobeki ulertzeko.
- Beste pertsona batzuegandik beste sentimendu, desio, beharrian, aukera, etab. batzuk ikas ditzakegu.
- Jolas dezakegu beste pertsona bat izatera, beste "ni" bat, etab. Gustukoen duguna zein den hautatu ahal izateko.

jolas esanguratsuak

Zaintzen ikastea funtsezkoa da **autonomiarako hezkuntzan**. Lehenbiziko urrats autonomoak eta ikasleek hartutako erabakien lehen egoerak, zuzenean daude lotuta zainketarekin. Horregatik, **zainketa jolasak esanguratsuak dira**, ondokoetarako:

- Ikasleen eguneroko bizitza: haien beharrak, azturak, osasuna, ongizatea.
- Ikasleek haien inguruarekin eta inguruko pertsonekin dituzten hartu-emanak. Lehen hautapenak eta ekintza autonomoak.

"NIK ZAINTZEN DUT, ZUK ZAINTZEN DUZU, HARK ZAINTZEN DU...":

Ipuinen, irudien, narrazioen, horma-irudien, argazkien, bideoen eta abarren bidez pertsona bakoitzaren garapen eta ongizaterako **familia eta gizarte zainketaren** eginkizunak identifikatzea, ikasleek ezagutu ditzaten pertsonen zainketan baliatzen diren **prozesuak, tresnak, dedikazio denborak, tokiak, makinak, etab.**

Erabiltzen ditugun materialetan **gizonak zein emakumeak** azaldu beharko dira ardurak eta zereginak hartuz. Transmittitu behar dugu zainketa ez dela soilik emakumezkoen lana, baizik eta gizonek zein emakumeek beren gain hartu behar dutena.

Materialetan eta ondoriozko hausnarketetan bereziki azpimarratu behar ditugu ondoko alderdiak:

- ▶ Pertsonen zainketa **ez da soilik familiaren ardura**, norbanakoen. Aitzitik, gizarte guztiarena ere bada. Alegia, erakundeek, enpresek eta abarrek ere ardura hartu behar dute, familien eta pertsonen zaintzari dagokionez.
- ▶ Ipuinetan azpimarratu eta nabarmendu beharko dira **besteak zaintzen dituzten pertsonaiak**, zentzu, forma, beharrian, eremu une eta abar anitzetan, eta zer nolako garrantzia duen horrek guztiak gainontzekoendako.
- ▶ **Zainketarako gizarte baliabideak** aipatu, kasu, haur eskolak, hirugarren adinerako egoitzak, ospitaleak, eta abar, ezagutu dezaten nola funtzionatzen duten, nork egiten duen la horietan, nork josten duen bertara, zein duten onuradun, etab.

"NIK ONGI ZAINTZEN ZAITUT, ZUK ONGI ZAINTZEN NAUZU":

Bikoteka eta talde txikian lan egiteko jolas eta jarduerak, elkarri laguntzeko, zerbait elkarrekin egiteko, ondoan egoteko, interesa izateko, entzuteko, hitz egiteko, ukitzeo, besarkatzeko, irri egiteko... balio dutenak. Adibidez:

- ▶ **Denbora tarte bat ematea** uztai baten barruan, aulki berean, etxetxo, iglu edo tunel batean, koltxoneta batean baltsa bat simulatuz, etab.
- ▶ Denbora tarte zehaztu batean **partekatzea** jostailu bat, kartoi mehe bat (pinturekin, eranskailuekin...), triziklo bat, puzzle bat, ipuin bat, manta bat, mozorro bat, linterna bat, etab.
- ▶ Bikoteka jolas eta jarduerak **egitea**, kasu, ile-apaindegia, fisioterapia, masajea, akrobaziak, hondartza, bainua, bizarra egitea, etab.

Ikastaroan zehar egindako jarduera eta hausnarketetan batez ere azpimarratu behar duguna da **pertsonen zainketa** etxeko lanak (eros-tea, sukaldean aritzea, garbitzea, etab.) **egitea baino zerbait gehiagoko dela**. Barne hartzen du arreta, hurbiltasuna, laguntasuna, enpatia, denbora eta bizitza partekatua, interesa, solasa...

Baliabide on bat izan daiteke **istorioak kontatzea**. Istorio horiek bikoteka edo talde txikian **antzeztu** beharko dira. Adibidez:

- ▶ "Gaua da (neskak) ohera goaz. Bakoitzari aita (mutillak) hurbildu eta babestu eginen gaitu, laztandu eta bizkarra berotuko digu, hitz eginen digu, ilea txukunduko digu, ipuin bat kontatuko digu, musu eman eta alde eginen du", etab.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ZAINZAREN ETIKA

LEHEN HEZKUNTZA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Haur Hezkuntzarako aipaturikoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta:

- ▶ Lehen Hezkuntzako curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira.
- ▶ Zaintetan eta familia arduetan erantzukizun partekatua duten gurasoei, pertsonak zaintzeko gizarte baliabideei... **bisitak eta elkarrizketak** egiten bazaizkie.

Ondoren aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independen-tean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

"NIRE BIZITZAKO 10 GAUZARIK GARRANTZITSUENAK"

Helburua da ikasleek bakoitzaren baliorik garrantzitsuenen gaineko autoanalisi eta hausnarketa egin dezatela. Horretarako, ikasle bakoitzak **zerrenda bat** idatzi beharko du, haren bizitzan gaur egun diren **hamar gauza garrantzitsuenekin** eta nagusiak direnean izanen diren hamar gauza garrantzitsuenekin.

- ▶ Ez pertsonalizatzeko, mutilen gauza guztiakin batez besteko zerrenda komun bat eginen dugu, eta beste bat neskenekin. Oro har ari gara, ez pertsona bakoitzaren zerrendaren gainean.
- ▶ Berdinak dira nesken eta mutilen zerrenda bateratuak, gaur egunekoari eta etorkizunekoari dagokionez? Zein desberdintasun dago? Zergatik? Zaintza mutilen Top 10-en artean dago? Eta enplegua nesken Top 10-ean? Zergatik?
- ▶ Neska batzuen banakako zerrenda mutilen zerrenda bateratuaren antzekoagoa da neskena baino? Zergatik? Eta nesken zerrenda bateratuaren antzeko banakako zerrenda duten mutilik badago? Zergatik?
- ▶ Bigarren zati batean, haien zerrendan beste zutabe bat gehitu behar dute. Bertan adierazi beharko dute zenbat denbora eskaintzen dioten gaur egun jardura horri eta etorkizunean zenbat denbora eskainiko dioten.
- ▶ Gauza garrantzitsuren bati ez zaio denborarik eskaintzen? Zergatik? Orduan, garrantzitsuak dira? Gauza berak dira nesken eta mutilen kasuan? Zergatik?
- ▶ Zerrendan ez dauden gauza batzuei denbora asko eskaintzen diegu? Zergatik? Gauza berak dira nesken eta mutilen kasuan? Zergatik? Zein ondorio ditu honek guztiak?



entzun, ikusi eta ekin

Gure ikasleek ez dute ikasten soilik entzuten dutena eta esaten dieguna. Haur ere ikasten dute:

- **Zer ikusten duten:** Nork zer egiten duen, nork zaintzen duen eta nork ez, etab.
- **Zer egiten duten,** zertara jolasten diren, zer esperimentatzen duten: nork jolas dezakeen zertara, nork ikas dezakeen zer, nork egin dezakeen lan zertan, etab.
- **Zer erakusten** dioten beste bati, zer azaltzen, argudiatzen, komunikatzen, partekatzen...

Hori guztia etxean, eskolan, telebistan, prentsan, publizitatean, jolasetan, interneten, etab.

eredu eta erreferenteak

- Hortaz, eskolan ondokoa egin dezakegu:
- Zaintetarako berdinak diren ereduak entzun, ikusi, egin, esperimentatu, bizi, erakutsi edo kopia ditzatela: **imitatzeko ereduak.**
 - Azter eta hausnarraraztea bestelako gizarteratze eta hezkuntza eremuetan ikusten diren zaintza ereduaren gainean: **baztertzeko ereduak.**
 - Azterraraztea zeintzuk abantaila eta eragozpen, eragin eta bizitza eredu ondorioztatzen diren eredu batetik eta bestetik, horiek balioztatzea, eta hauta dezatela haien bizitzarako nahi dituztenak: **autonomia eta erabakiak hartzea.**

mozorroak

Beste batzuk izatera jolastea, eta beste baten tokian (larruan, oinetakoetan) jartzea aiseago egiten da mozzorratzeko eta jolasteko elementuak baldin baditugu: Kapelak, oihalak, betaurrekoak, ile-ordeak, sudurrak, poltsak, tresnak,

lepokoak, gerrikoak, korbatak, zapiak... Horrek guztiak aukera ematen digu pertsonaia asmatzeko eta haienganako **sinpatia eta enpatia sentitzeko**. Gainera, aukera ematen digu norbere burua asmatzeko, probatzeko, beste aukera batzuen ispiluan jartzeko, kasu, zaintzailearen paperean jartzeko.

kontaidazu

Gure ikasleek jakin, ezagutu, ulertu... nahi dute. Izugarritzko jakinmina dute munduaren funtzionamenduaren, makinaren, animalien, eta batez ere, **jen-dearen bizitzaren, harremanen eta giza bizitzako ereduaren gainean**.

Hurbilen eta ezagunen dutenetik hasita eta urrunera eta exotikoena den hartaraino, oro jakin nahi dute xehetasunez, xehetasun handiz, xehetasun guttiz. Baita zainketari dagokionez ere.

- Funtsezkoa da zaintzaileek ikastetxera **bisitak** egitea, edo ikasleak joatea emakume eta gizon horiek dauden, lan egiten duten... tokietara.

- **Istorio eta narrazioak**, haietan egoera eta antolamendu, arazo eta zainketa konponbide desberdinak bilduz.

- Ikusten eta ezagutzen dituzten serie, programa, pertsonaia eta heroi eta abarren gaineko **liburu, zinema, telebista edo bideo forum** mota oro, baliabide ona da errespetuzko eta zaintzako jarrerak ezagutzeko eta balioztatzeko.

bitzitarako jarraibideak

Bitzitzeko gidaliburu antzeko bat osatzen duten eredu hauen guztien aurrean, ondokoa galdetu behar diogu geure buruari, eta gure ikasleekin aztertu:

- Ea ba ote dagoen neskendako eta mutilendako ereduak, eta zergatik. Hots, ba ote dagoen pertsona izateko modu berezi bat neska izanda eta beste bat mutila izanda, edo batzuk zein bestek hauta dezaketen pertsona izateko modua, **sexu batekoak zein besteak izan**.

- Izan ote daitezkeen pertsona autonomoa eta arduratsua, erabat garatua, familiaria dagokionez pertsona bidezkoa eta zoriontsua, ongi gizarteratua eta aktiboa, **gizon edo emakume zaintzailea** izan gabe.

"ONGIZATEAREN ETA FAMILIA KALITATEAREN ZERREDA"

Ikasle bakoitzak zerrenda bat osatu beharko du, familia-ongizate eta bizitza-kalitate maila on bat lortzeko zainketa ardura eta zereginekin. Helburua da ohartu daitezela **zainketa** erostea, garbitzea, sukaldean aritzea, lisatzea... eta halako **etxeko lanak egitea baino zerbait gehiago** dela. Ikus dezatela norbanako eta gizatalde mailako ongizatea eta bizitza kalitatea ere badela, abantailak dituela norberarendako, familiairendako eta gizartearen osotasunarendako.

- ▶ Pertsonen zainketa etxeko lanak baino zerbait gehiago da. Barne hartzen ditu arreta, hurbiltasuna, laguntasuna, enpatia, denbora eta bizitza partekatua, interesa, solasa... Zerrenda egiteko, familietan jasotzen dituzten zainketa guztiak gogoan izan beharko dituzte.
- ▶ Behin zerrendak osatuta, zerrenda bateratua eginen dugu ikasle guztiekin, zerrenda horrekin lan egiteko: Aipaturiko zereginetatik zenbat egin ohi dituzte, oro har, emakumeek? Zeintzuk egin ohi dituzte gizonezkoek? Zergatik?
- ▶ Beste modu batera izan zitekeen? Zergatik? Beste modu batera antola zitekeen? Nola? Zaintzen ikas daiteke? Zergatik? Nola ikasten da? Beharrezkoa da ikastea?

"ORBANEN (ERREZETEN, KAMISETEN...) TAILERRA"

Aste batean zehar, **garbitzea behar duten eskolako objektuak** bilatu, identifikatu eta jasoko dira: mantalak, kortinak, aulkiak, mahaiak, liburuak, psikomotrizitate materiala, ahokatzekoak, ordenagailuak, inprimagailuak, landareak, lanparak, laborategiko materiala, maskotak, ordulariak, irrati-kaseteak, pintzelak, astoak, paletak, jostailuak, kiroletako arropa eta materiala... Horrela, modu batera edo bestera garbitu beharko dira orbanak, orban motaren eta materialaren arabera.

- ▶ Piezak banatuko dira ikasleen artean, eta ahal dela, ikasle bakoitzarendako pieza bat utziko da. Asteburuan zehar **etxean edo hurbilekoen artean galdetu beharko dute orban hori zerekin eta nola garbi daitezkeen**. Esandako egunean ikasgelan/tailerrean dagokien garbiketa lana egiteko behar diren produktu eta lanabesak ekarri beharko dituzte.
- ▶ **Nori galdetu diote? Zergatik? Emakumeei gizonei baino gehiago? Zergatik? Bazekiten erantzuna? Zergatik? Nola ikasi dute? Norekin? Noiz?**
- ▶ Orbanak kendu ahal izateko **baliagarria** eta garrantzitsua da eza-gutza horiek izatea? Zein abantaila ditu hori egiten jakiteak? Zein eragozpen ditu ez jakiteak? Ikasi daiteke? Nola? Neskek zein mutilak ikas dezakete? Hala egiten dute? Zergatik?

Jarduera mota hau ondokoekin ere egin daiteke:

- ▶ **Sukaldeko errezetak**. Ikasle bakoitzak ikasi behar du plater jakin bat egiten. Jaki hori prestatu eta argazkiak atera beharko dizkio, egin ahala, gero errezeta azaltzeko ikaskideei. Emaitzarekin dastaketa saioa antola daiteke.
- ▶ **Kamiseta lisatuak**. Ikasle bakoitzak kamiseta bat lisatu behar du etxean, eta kamiseta lisatuen erakusketarako ekarri behar du ikas-tetxera. Erakusketan ongien lisaturiko kamisetak hautatuko dira, eta esperientziak, zailtasunak, ikaskuntzak, trikimailuak azalduko dira.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ZAINZAREN ETIKA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - DBH

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Lehen Hezkuntzarako aipaturikoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta:

- ▶ Bigarren Hezkuntzako curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira.
- ▶ Bereziki gehitzen badira eskolari, lanari, ibilbide akademikoei, denboraren erabilerrari eta abarri buruzko **datu estatistikoak**, horrela, gaur eguneko errealitatea inertziaraz edo ohituraz transmitituriko mito eta genero estereotipoekin erkatu ahal izateko.

Ondoren aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independentean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

"NIRE BIZITZA... 15 URTE BARRU"

Ikasle bakoitzak idatzi behar du, adibidez, 15 urte (adinaren arabera) aurreragoko bere proiektzioa, bi ataletan:

- ▶ **Aurkezpen edo sarrera orokor** labur bat, bertan azalduz nor den eta nola bizi den (bizitza egoera).
- ▶ 15 urte barruko haren bizitzako **lanegun baten** (asteazkena, adibidez) **narrazio xehetua**.

Ondoren, proiektzio horiek landuko ditugu, pertsonalizatu gabe:

- ▶ Bizitza proiektzioen laburpen bat egitea: neskena batetik, eta mutilena bestetik. Ondoriozko laburpenak aztertzea eta erkatzea. Bada diferentziarik? Zein? Zergatik?
- ▶ Bi laburpenetan ere agertzen da zaintzaren etika eta enpleguaren zentralitatea? Zergatik? Zein ondorio izan dezakete diferentzia horiek haien bizitzan?
- ▶ Xehetasunez kontaturiko egun horretan zehar, denboraren antzeko erabilera egiten dute? Zein diferentzia daude? Zergatik? Zein ondorio izan dezakete diferentzia horiek haien bizitzan?

"ASTEBURUKO EGUNKARIA"

Xedea da xehetasunez idatz ditzatela asteburu batean ondokoek egingo dako jarduerak:

- ▶ **Berak-neskak eta berak-mutilak.**
- ▶ **Amak edo familiako beste emakume batek.**



datuak bilatu

DBHko ikasleek ikerketzeko grina izaten dute, izugarri maite dute ikerlariak eta/edo kazetariak izatea: bilatzea, galdezea, ezkatuturiko xehetasun horri, edo xehetasun bitxiari, korapilatsuari, erreparatzea... Ezaugarri ebolutibo horretan oinarrituz zainketaren alderdi askotariko inguruko informazioa eta datuak bilatzea eskatzen duten erroreak eta galderak proposatzen ahal zaizkie. Horretarako, ondokoak erabil daitezke:

- Datu estatistikoak.
- Komunikabideak.
- Publizitate kanpainak.
- GKEen, erakundeen... txostenak.

datuak deszifratzea

Datu bilketak bilaketarako gutxieneko irizpide metodologiko batzuk eskatuko ditu, eta planteaturiko galderarekiko egokitasuna balioztatzeko irizpideak ere behar dira. Hezkidetzaren ikuspegitik, **irizpide** horiek ondokoa kontuan izan behar dute: nahitaezkoa da **datuak sexuaren arabera bereiztea**, horrela, sistematikoki ikusi ahal izateko emakumezkoen eta gizonezkoen datuak, egoera, baliabide, konpromiso eta abarren mailan alderik balego ere.

galderei erantzutea

Beste irizpide garrantzitsu bat da ikerketari **genero ikuspegia** aintzat hartzen duen galde-sorta bat eranstea, ikusi ahal izateko datuak, balioespenak eta maila orokorreko ondorioak gisa berean aplikatzen ahal zaizkien emakumezko eta gizonezkoek: Datu hauek berdinak dira emakumeen eta gizonen kasuan? Emakumeek bizi duten egoera hau gizonen ere bizi dute?

erantzunak ematea

Ikasleen ikerketa lanak bukatzeko, ondokoak **egin eta erakutsi** behar dira:

- Leloak, esaldiak, biko ernimatuak...
- Kartelak, pankartak...
- Errepikak, kantuak, sehaska kantuak...
- Argazkiak, bideoak...
- Objektuak, lanabesak, arropak...
- Eztabaidak, solasaldiak, mahai-inguruak...

Hots, ikusgarriak diren emaitzak, ikasleek jendaurrean erakutsi ahal izan dezaten egindako bilaketaren nondik-norakoa, zainketaren ginean egindako ikasketa prozesua, ikerturiko gaiak, eta kasuan kasu, jasotako erantzunak edo birformulaturiko galderak.

"normala" alderantzikatzea

Alderantzikatzearen proba baliabide egokia da datuak interpretatzen ikasteko, hezkidetzaren eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren ikuspegiak. Gauza zera da: ikasleei galde-tzea "normalizat" eta "begi bistakotzat" jotzen dugun hura, hala ote den datu horien protagonisten sexua aldatzen dugunean.

Adibidez, askotan "normalizat" jotzen dira haien seme-alaben etxearen kargu hartzen duten amaxi edo andre jubilatuen ehuneko handiak, beraien etxearen kargu hartzeaz gain, eta gisa berean, normalizat jotzen da aitaxien edo jubilatuen ehuneko handi batek denbora tarte handia ematea lagunekin edo elkartean, ostatuan edo halakoe-tan, beste gizon batzuekin batera.

Errealitate hori **interpreta dezakegu**, esanez "normala dela", "gauzak horrela direla", "hori gustatzen zaiela", "hori dela nahi dutena", "ohitura horixe dela", "horrela sentitzen direla ongi", "desberdintasun naturalak baietsi egiten direla", etab. Edo datuak aipa ditzakegu, protagonisten sexua aldatuz, eta arraroa, desegokia egiten bazaigu, **bada**, gaur egungo benetako bertsioan ere arraroa eta desegokia iruditu behar-ko litzaiguke. **Arraro izate hori** gure ikerketaren **interpretazioan eta ondorioetan txertatu beharko litzateke**.

▶ Aitak edo familiako beste gizon batek.

Erkatu asteburuko hiru egunkariak.

- ▶ Zein jardueretan egiten dute bat hiru pertsonak? Denbora bera ematen dute horretan? Beste biek egin ez dituzten zein gauza egin ditu pertsona bakoitzak? Denbora bera ematen dute horretan? Bada diferentziarik? Zergatik? Sexuaren arabera? Eztabaidan bilatu eta sartu **denboraren erabileraren eta aisialdiko azturen gaine-ko datu estatistikoak, sexuaren eta adinaren arabera**.
- ▶ Lau laguneko taldeetan lan eginez, aztertutako mota bakoitzeko asteburu bat hautatuko dute, eta gainontzeko gelakideen aurrean batera antzeztuko dituzte: ikasle batek elkarrekin emandako asteburu bat kontatuko du (X orduan, amak... egin du, aitak... semeak... alabak... Ordu bat beranduago,...) Eta gainontzekoek antzeztu egi-nen dute. Eztabaida eta ondoko oharrak.

"GALDERA BAT DUT ZURETZAKO"

Ikasle bakoitzak galdera bat idatziko du haren interesekoa den eta pertsonen zainketarekin loturik dagoen zeinahi alderdi edo gairen gainean. Irakasleek ere galderak egin ditzakete. Adibidez:

- ▶ **Aulki gurpildun** batean dabilen ikasle batek nola egiten du du-txatzeko? Zein oztopo izan ditzake bizitzeko eta etxean barna mugit-zeko? Eta eskolara joateko? Zer egin dezake eta zer ez, nora joan daiteke eta nora ez eskolan dagoenean? Etab.
- ▶ Zenbatean behin ematen zaio **biberoia** haurtxo bati, lehenbiziko hilabeteetan? Nola prestatzen da biberoi bat? Zein osagai ditu? Beti prestatzen da osagai berekin eta proportzio eta kantitate berekin? Etab.
- ▶ Zenbatean behin aldatu behar zaizkio **xatarrak** haur bati bizitzako lehen urtean? Zenbat urtera arte erabiltzen dituzte xatarrak? Nola irakasten zaie xatarrak ez erabiltzen? Etab. Pertsona nagusien arte-an zeinek behar dituzte xatarrak? Zergatik? Xatarraren erabilerak ara-zoak sor diezazkieke?
- ▶ **Memoria** galtzen hasi den adineko bat bizi daiteke bakarrik? Bizi daiteke bakarrik pertsona bat, bisitarik izan gabe, inorekin hitz egin gabe, inork hura agurtu gabe, inork entzuten ez badu...? Etab. Nola? Zergatik? Zer gerta dakiok? Nola hobe daiteke egoera hori? Etab.
- ▶ Zer da **eguneko zentro** bat? Nola funtzionatzen du? Nola funtzio-natzen du zahar-etxe batek, ezinduen egoitza batek...? Pertsona horiek jasotzen dituzte bisitak? Ateratzen dira kalera? Familiakoekin eta lagunekin izaten dira? Etab.
- ▶ **Zenbat** haur eskola edo haurtzaindegi, eguneko zentro, eta abar daude? Aski dira jendearen beharretarako?

Lantaldeak osatuko dira. Galderak nahasiko dira eta ausaz banatu-ko zaizkie taldeei. Talde bakoitzak egokitu zaizkion galderei erantzunen die eta galdera horien erantzunak bilatuko ditu ikastetxean eskura dituen bitartekoetan, interneten, etxean edo ezagunei galdetuz, uda-letxean, estatistikak kontsultatuz...

Azkenik, galderak eta erantzunak antzeztuko dira, taldeka. Ikasle bakoitzak bere taldeko galdera bati **erantzun** beharko die, eta ondo-ren, talde guztiak erantzun beharko dio une horretan berean sor dai-tezkeen zalantza edo galdera osagarriei.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ZAINZAREN ETIKA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKOA: BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako aipaturikoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta:

- ▶ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengoko curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira.
- ▶ **Emakumezkoen eta gizonezkoen laneko datuak** bereziki txertatzen badira, jarduera, kontratu, lanaldi, lan kategoria, langabezi... motaren arabera, profil profesionalak, lanbide heziketako datuak adarka, lan hitzarmenak, emakumezkoen eta gizonezkoen denboraren erabileraren gaineko datuak... horrela, gaur eguneko errealitatea inertziaz eta ohituraz transmitituriko genero esteretipoein erkatu ahal izateko.

Ondoren aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independen-tean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

"ROLEZ ALDATZEA"

Ikasleei ondoko egoera proposatuko diegu: ikasle bakoitzak, esnatze-rakoan, ikusiko du **familiako pertsona heldu bat** bihurtu dela, hots, aita edo ama, hain zuzen ere, eta pertsona horren lanaren, familiaren, adiskideen kargu hartu behar duela. Horretarako:

- ▶ Ikasleak **bikoteka** jarriko ditugu. Bikote bakoitzak bere kabuz antolatu beharko du, familia aipaturiko egoeran aurrera atera ahal izateko. Bikote bakoitzak haien anai-arreben batura bezain beste haur izanen ditu. Seme eta alaba hauek haien anai-arreben adin bera izanen dute. Lanari dagokionez, haien gurasoen benetako lanetatik nahi dutena aukeratuko dute joan-etorriei, ordutegiei eta abarrei dagokienez, aukeratutakoaren lan baldintza berekin.
- ▶ Nola banatuko dira zainketa **lanak** (haurrak, osasuna, hezkuntza, arreta eta elkarrekin denbora pasatzea...), enplegua, aisialdia, lagunak, gizarte jarduerak... eta antzeko jarduerak ere egin ahal izateko?
- ▶ Bikote bakoitzak gainontzekoei azalduko die **nola antolatu** diren, ondoriozko zalantzak eta galderak argituz.
- ▶ Antzeko antolamendua duten kasuak bilduko dira, horrela, eredu gutxi batzuk geldituko dira, bikote guztien planteamenduen laburpen eta eredu gisa.
- ▶ Eredu orokor hauetako bakoitza aztertuko da, pertsonalizatu gabe, antolamenduaren aplikagarritasun errearen ikuspegitik, eta bereziki, berdintasunaren ikuspegitik.



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

rol jokoak

Jokoak **ispilu** bat dira, bertan begiratu ahal izateko, pertsonalizatu gabe edo sobera agerian geratu gabe. Baliabide egokia dira gure ikasleak ez daitezke defentsiban jarri, beldur direlako ez ote diren planteatuko diren gaiak beraien egoera partikularrean sobera pertsonalizatuko.

Beste aukera batzuk dira orokorrean hitz egitea, estatistikei eta gizarte joerei buruz aritzea, laburpenak eta portaera **profil orokorrak, motak eta ereduak** bilatzea, horrela, horiekin identifikatu arren horietatik urrudun ere egin ahal izateko. Rol jokoak baliabide horiek guztiak ahalbidetzen ditu. Rol jokoak aldi berean ematen duen **hurbiltasuna eta urruntasuna** nahitaezkoak dira enfrentamendu, aurpegiatze eta abar antzu eta tirabiratsuak ekiditeko. Halakoak maiz sortzen dira nerabeen artean, gaia modu zuzenegan eta hurbilegian planteatzen denean.

enpatia

Rol joko eta aldaketak ere enpatia tailer handi bat dira, beste pertsona batzuen egoerak, gora-beherak, erabakiak eta jarduerak ezagutzeko aukera aberats bat. Haien zergatiak ulertzeko aukera da, eta baita ere beste bizitza proiektu eta portaera batzuekiko errukia, errespetua, elkartasuna... sentitzeko eta haietatik ikasteko. Hori guztia funtsezkoa da zainketaren etika ikasteko. **Zainduaren eta zaintzailearen rola hartzea** da modu bakarra ikasleek ikas dezaten haien bizitzan sartzen, ezagutuz gain, pertsonak zaintzeko jarrera eta konpromiso etikoak.

zaintzaileak

Zaintzen ikasteko beharrezkoa da zaindu nahi izatea eta zaintzea. Hortaz, gure ikasleci aukera eman behar diegu **egiaz zaintzaileak izateko**. Zaintzaile izatea ez soilik rol jokoetan, baita ere errealitatean.

Ildo horretan, eskain dakiekeen **espe-
rientzia erreal** oro, laburra eta muga-
tua bada ere, aukera bat izanen da ikas-
kuntza esanguratsua egin ahal izateko:

- **Adin txikiagokoen** zainketaz ardu-
ratzea, jarduera edo une zehatzen
batean, bai ikastetxean berean edo
bai beste ikastetxe batean (sarrerak,
irteerak, jantokia, jolastordua, etab),
bai eskolakoak ez diren tokiko jar-
dueretan (elkarteak, kirol taldeak,
GKEak, udal erakundeak, etab).

- **Haien adinekoen** zainketaz ardura-
tzea, **ikastetxean** diren zerbitzuetan
edo martxan jarri daitezkenetan: ikas-
keta taldeak, kirol taldeak, aisialdi jar-
duerak (mendia, zinema, antzer-
kia...), liburutegia, haurtzaindegi zer-
bitzua familia bilkuretan, entzute eta
laguntza taldeak egoera pertsonal
jakinetarako (mendekotasunak,
dolua...), orientazio profesionaleko
taldeak edo sareak, etab.

- Familiako, ikastetxeko, herriko, ingu-
ruko... **erien edo adinekoen** zain-
ketan laguntzea, horretako dauden
zerbitzu eta taldeetan: elkarteak,
GKEak, erakundeak, fundazioak,
zahar-etxeak, ospitaleak... Horietan
ondoko alderdiak landu daitezke:
harrera, onarpena, denbora ematea,
entzutea, kudeatzea, joan-etorriak,
aisialdi eta ongizate jarduerak, eta
abar.

zaintzailea zaintzea

- **Zaintzailea** zaintzen laguntzea,
familian, ikastetxean, herrian... atse-
denerako tarte bat, baliabideak, esti-
mua, aitortpena, laguntza, esker
ona... emanez. Horrek bane har-
tzen du ikasleek beraien zainketa,
atsedena, auto-estimua, aitortpena,
asebetetzea... Guztiak ere, ikasle
ororen ikasketa prozesuan desiraga-
rriak eta beharrezkoak.

- ▶ Antolamendu **zuzena eta berdintasunezkoa** da? Familiako kide guztien garapen pertsonal osoa ahalbidetzen du? Ardura eta dedi-
kazio baliokideak hartzen dituzte?
- ▶ Antolamendu horrek sustatzen ditu **berdintasunezko eta autono-
miatzko** harremanak, ala iherarkiazko eta mendekotasunezkoak? Eskubide eta betebeharrak berak dituzte, aukera eta baliabide berak?
- ▶ Zer gertatuko litzateke bi pertsona izan beharrean bakarria balitz lan guztiaren ardura hartuko lukeena? Nola antolatuko luke bere burua?

"BERROGEI GARRANTZITSUENAK"

Lau talde misto osatuko ditugu. Talde bakoitzak "zainketako 10 garrantzitsuenekin" zerrrenda osatu beharko du, eremu eta formatu hauetako batean:

- ▶ **Jarraibideak:** pertsonak zaintzen ikasteko, zer eta nola egin behar den jakiteko, kontsultarako eta zalantzak argitzeko eta abarrerako gidak, liburuak, esku-liburuak, errezeta liburuak, zerrendak, webgu-
neak, cd-ak, etab.
- ▶ **Ekipoa:** toki mailan, nazio mailan edo nazioarte mailan aipagarriak diren erakundeak, antolakundeak, GKEak, elkarteak, fundazioak, eta abarrak, pertsonen zainketan edo alderdi bereziren batean azpi-
marratzekoak direnak.
- ▶ **Liderra:** pertsona zehatzak, ezagunak izan zein ez, herri mailan, nazio mailan edo nazioarte mailan, pertsonen zainketan edo alderdi bereziren batean azpi-
marratzekoak direnak.
- ▶ **Ekintza:** fikziozko filmak, dokumentalak, ikus-entzunezkoak, etab., orokorrean pertsonen zainketaren gaiaren edo horren alderdi bere-
ziren baten gai, egoera, alderdi, zailtasun, baliabide, eta abarrak jaso, garatu, hausnartu, adierazi, planteatzen dituztenak.

Talde bakoitzak bere **zerrrenda** aurkeztuko die gainontzekoei, ondoko-
ak azalduz:

- ▶ Zein den edukia, nor den, zer egiten duen, nola erabiltzen den, non egiten duen lan... hautatu dituen 10 aukeretako bakoitzari dagokionez.
- ▶ Zein arrazoiengatik hautatu eta txertatu duten 10 garrantzitsuenen zerrrendan.

Beste saio batean, talde bakoitzak xehetasun handiagoz eta zabalta-
sunez aurkeztuko du **hautaturiko aukeretako bat**. Gainontzekoek galdetu, zalantzak argitu, aipatu, eztabaidatu ahal izanen dituzte. Adibidez:

- ▶ Liburua, CDa, webgunea... edo horien zati bat erakutsiko dute eta adibideren bat edo erakustaldi praktikoren bat egiten dute, zainke-
tari, garbiketari, sukaldean aritzeari, beste batekin denbora emate-
ari, jolasteari, fisioterapiari, errehabilitazioari eta abarri dagokienez.
- ▶ Filmak, ikus-entzunezkoak, power point aurkezpenak, argazkiak, eta abar erdietsiko dituzte, erakundeen, pertsonen edo ekintzen gai-
nean, eta alde zuzeneko aurkezpenak eta proiektzioaren ondoko
hausnarketa eta eztabaida prestatuko dituzte.
- ▶ Pertsonaren bat gonbidatuko dute eta gainontzekoen aurrean elka-
rriketa egiten diote, haren jardueraren gainean, kide den taldea-
ren gainean edo egiten duen zainketa lanaren gainean...

Azkenik, 40 garrantzitsuenen zerrrenda prestatu eta zabalduko da ikas-
tetxean, familietan, udalerrian, etab.